

2025EKO URRIAREN 6KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urriaren seian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2025eko irailaren 22an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 73 zenbakidun zerrenda, BERROGEITA HEMEZORTZI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI euro ETA HOGEITA BAT zentimokoa (58.666,21 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- 2024 URTEKO 105 FAKTURA ZERRENDAKO FAKTURA BAT EZ ORDAINTZEA ONARTZEA.-

2025eko otsailaren 10eko Tokiko Gobernu Batzordean, 2024 urteari zegokion 105 faktura zerrenda onartu zen. Zerrenda honetan, Construcciones Iturrioz, S.A.-k jaulki zuen 24/00837 faktura sartu zen, eta honenbestez, hau ordaintzea ere onartu zen.

Faktura honi zegokion kopurua 8.471,84 €-koa zen (BEZ barne) eta kontzeptua "farolen hornidura" zen.

Farolen hornidura hori azkenean ez zen gauzatu, ezta fakturaren ordainketa ere. Beraz, faktura hori ez ordaintzea onartu du Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez.

IV.- HIRIGOIEN 56-58AN BULEGOETARAKO 2 LOKAL GAITZEKO LANEN 1. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Hirigoien kaleko 56-58 zenbakietan Lazkaoko Udalak dituen bi lokal gaitzeko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, lanen lehen obra egiaztagiria egin du. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa BERROGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMALAU euro ETA HOGEITA ZORTZI zentimokoa (49.634,28 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HAMAR MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HIRU euro ETA HOGEI zentimokoa (10.423,20 €) da, guztira HIRUROGEI MILA ETA BERROGEITA HAMAZAZPI euro ETA BERROGEITA ZORTZI zentimokoa (60.057,48 €).

Lanak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, lehen obra egiaztagiri hau onartu egin du.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, BEROKUNTZA INSTALAZIOEN MANTENUAREN KONTRATUAREN LEHEN LUZAPENA (2023).-

2023ko otsailaren 27ko Tokiko Gobernu Batzordearen akordio bidez, Udal honek "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X23003) EULEN, S.A. enpresari (IFZ.: A28517308) esleitzea erabaki zuen, esparru akordioa burutzea erabaki zen baldintzetan.

Aipatu kontratua bi urterako izenpetu zen, gehienez urtebeteko 2 luzapen egiteko aukerarekin.

Aurreikusitako mugaeguna iristear dela kontuan izanda, Gobernantza Departamentuak, 2025eko irailaren 17ko foru agindu bidez, urte beteko lehenengo luzapena baimentzea erabaki du.

Honen aurrean, eta espedientean dauden txostenak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lazkaoko Udalaren eta EULEN, S.A. enpresaren artean eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzurako izenpetutako kontratuaren urte beteko lehen luzapena onartzea.

VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatiko dirulaguntza.-

2025. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarra izan da, bere espedientean dauden datuen arabera, eta 100 € emango zaizkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Hiru ikasle izan dira eta emango zaien kopurua 1.180,15 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Kantaka Abesbatza taldeari.-

Kantaka Abesbatzaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2025eko aurrekontuaren 481.05.334.00 partidatik ordainduko da.

San Benito ikastetxeari.-

San Benito ikastetxeko Batxilergoko 1. mailako ikasleek 2025eko San Migel festetan egin ziren ekintzen antolaketa lanetan laguntzeagatik 900 € ematea.

Orobione jubilatutako elkarteari.-

San Migel jaietan, irailaren 27an, sagardo dastaketarako edalontziak saltzen aritzeagatik 443 €-ko dirulaguntza ematea.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.